



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2022ko martxoaren 1eko bilkura

Bi mila eta hogeita batgarren urtean eta 2022ko martxoaren lehenean, zortziak eta erdietan, herri honetako Herriko Kontseilua, erregularitasunez deitua izanik, legeak manatzen duen kopuruan bildu zen, Herriko etxeko gelan, Jean-Marc OÇAFRAIN Auzapezaren lehendakaritzapean

Hor zirenak : AYÇAGUER Elorri, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki, IDIART Claudine, IÑARRA François IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Barkatuak zirenak : CASIRIAIN Elena, HEGUY Antton
Bilkurako idazkari izendatua izan da : FALXA Odile

Deialdiaren eguna : 2022ko otsailaren 25a
Afitxatze eguna : 2022ko otsailaren 25a

10. ERABAKIA: INBESTIMENDU GASTUAK GAIN HARTZEARI DAGOKION ERABAKIAREN ALDAKETA HASTAPENEN AURREKONTUA BOZKATU BAINO LEHEN Nomenklatura: 7.10

Auzapezak kontseiluari oroitarazten dio Lurralde Elkargoetako Kode Orokorraren L. 1612-1 artikulua adierazten duela auzapezak, herriko kontseiluak baimendurik, inbestimendu gastuak abiatzen, kitzatzen eta mandatuz ordaintzen ahal dituela, aitzineko kontu aldiaren aurrekontuan irekitako kredituen laurdenaren heinean, hots 1 925 144 euro.

Baimen hori beharrezkoa da aurrekontua bozkatua izatea goaitzen ahal ez duten inbestimendu gastu berriak agertzen direlarik urte hastapenean.

Jaun auzapezak adierazten du antzeko erabaki bat jadanik hartua izan zela 2022ko urtarrilaren 4an, baina gastuak zehaztu behar direla.

Auzapezak kontseiluari azaltzen dio aipatzen diren gastuak ondokoak direla:

- Jantegiko eta haurtzaindegiko fakturazio programa bat erostea: 4 100 euro 2051. artikuluan
- Herriko Etxeko idazkaritzarendako ordenagailu bat erostea: 2 000 euro 2183. artikuluan
- 2021eko uholdeen ondorioz, presa handiko bide obrak: 44 500 euro 2151. artikuluan 2021eko abenduaren 148-Uholdeak eragiketa
- Ezker paretako ateak ordezkatea eta liburutegiarendako altzariak erostea: 7 700 euro 21318. artikuluan 108-Herriko eraikinak eragiketa

Behar diren kredituak aurrekontuan sartuak izanen direla zehazten du.

Herriko kontseiluak, Auzapezaren azalpenak entzun ondotik eta luzaz eztabaidatu ondotik,

BAIMENA EMATEN DIO auzapezari inbestimendu gastuak abiatzeko, kitatzeko eta mandatuz ordaintzeko, aitzineko kontu aldiaren aurrekontuan irekitako kredituen laurdenaren heinean, ondoko eragiketak egiteko:

hots:

- Jantegiko eta haurzaindegiko fakturazio programa bat erostea: 4 100 euro 2051. artikuluan
- Herriko Etxeko idazkaritzarendako ordenagailu bat erostea: 2 000 euro 2183. artikuluan
- 2021eko uholdeen ondorioz, presa handiko bide obrak: 44 500 euro 2151. artikuluan 2021eko abenduaren 148-Uholdeak eragiketa
- Ezker paretako ateak ordezkatzeta eta liburutegiarendako altzariak erostea: 7 700 euro 21318. artikuluan 108-Herriko eraikinak eragiketa

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 13

Balizko boz kopurua : 13

ALDE : 13

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Hala erabakia, gaineko egun, hilabete eta urtean. Bertaratu diren kideek sinatu dute erregistroan. Araberatasunez ziurtatu erabakia.

ORTZAIZEn, 2022ko martxoaren 1ean
Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2022/03/14an publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2022/03/14an.

